ELGOIBAR - 844. zenb. - XIX urtea - 2012-11-16

B
BARREN
TOKIKOM

# Txillarreko egiak

Pello Rubio 'Txillarre'



# LAGUNAK

colchonería textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20
TEL.: 943 744 457
ELGOIBAR
www.textillagunak.com

## ATSEDENEAN ETA ETXE-GERIATRIAN ADITUAK

**Zure argazkiekin hornitutako altzairuak egiten dizkizugu!**

**Berria!**













**Biribiltzen diren estoreak eta funda nordikoak ere pertsonalizatzen dizkizugu!**

TEMPUR — OLDSAN — terxy — Oihana Ohe geriatrikoak — KEYTON Masajedun besaulkiak — MASH





Joanes Rodriguez

*"Arrisku momentuak ekartzen duen alerta egoera bat da beldurra, eta askotan, bizitzeko beharrezko izaten da egoera hori. Hala ere, askotan, beldurra arriskurik ez dagoenean agertzen da; pertsonak egoera batek ez daukan larregizko arriskua ikusten duenean. Adibidez, umeak pospolo edo pizgailua piztean beldurra izatea, edota armiarmari, altuerari, jendearekin erlazioak izateari, jende aurrean hitz egiteari… beldurra izatea."*

Zer diozu, Maialen? Ez da erraza beldurraren inguruko deskribapenak topatzea Interneten. Google-n beldurra jarrita, euskara hutsean 1.120.000 emaitza ageri dira. Badira bi urte, Kanariar Uharteetako gizon batek, beldurra etorkizunera bidaiatzeko makinatzat saldu zidala. Gertatu ez diren gauzak ikusteko ahalmena, eta gainera, orokorrean, negatiboak. Hau da, zerk ematen digu beldur handiagoa: geure argiak edo geure argitasunak? Gauzak lortzeko eta aldatzeko gaitasunak?

## "Txikitzeak eta arazoei aurre ez egiteak ez dio munduari laguntzen"

Gure beldurrik handiena ez da gizarteak gu onartzea, Maialen; gure beldurrik handiena barnean daukagun indar mugagabea da. Gure argia da gehien beldurtzen gaituena, eta ez iluntasuna. Txikitzeak eta arazoei aurre ez egiteak ez dio munduari laguntzen. Ez da bat ere inteligentea makurtzea, goibeltzea, txikitzea... beste batzuk geure alboan indartsu sentitu daitezen, guztiok egin beharko genuke distira umeak bagina bezala. Ez da gutxi batzuentzako patua, baizik eta guztiona. Hau horrela, konturatuko gara, geure argiari distira egiten uzten diogunean, naturalki, gure albokoei ere uzten diegula daukaten argia erakusten. Geure beldurrak argitara ematean, automatikoki, geure ingurukoak ere aske izango dira.



Maialen Arnedo

Gai sakona plazaratu berri duzuna, Joanes. Dudarik gabe, horren ohiko den sentimendua geure barnean gorde eta bertatik ez ateratzeko ahalegina egiten dugu sarritan, izuak azkenik irabazi eta bere besoen artean hartuko gaituen beldurrez.

Zer pentsatu eta zer oroitu eman dit gaiak. Beste behin ere, horren gustuko dudan Sarrionandiaren *Kartzelako poemak* liburua esku artean hartu dut, begiak 31. orrialdean iltzatuz:

*"Behin munduan, asko legez, mutil bat harrapatu eta gaztelu handiko ziegarik ilunenenan giltzapetu zuten.*

*Argi errainu mehe bat sartzen zen bakarrik, leiho estutik, batzuetan.*

*Ez didazue sinetsiko, baina iluna ilunen eta errainua nabarmen zegoen batean mutila argi errainuaren gainean paratu eta korrika abiatu zen kanporantz, eta alde egin zuen desiratzeak balio duen lurraldera.*

*Hura bere errainuarekin ondo bizi izan bazen, guk ere bila dezagun gurea*".

Maiz, beldurraren aurrean, ez dugulako irtenbiderik topatzen, negarra izaten delako (edo negar eza) gure sentimenduak aldentzeko ustezko ihesbide bakarra. Askotan, berbak ez ditugulako maite izuak hartzen gaituenean. Sarri, izpirik txikienari ere jarraiturik, itomenetik alde egitea lortuko dugulako, bakoitzak bere modura, poeman ondo esaten den bezala. Ezer ez dagoelako galdurik zeuk sinesten duzun bitartean.

## "Sinisten dut norberaren izpi txikietan: Guk ere bila dezagun geurea"

Maiz, askotan, sarri… sentitu dudalako neuk ere beldurra. Baina sinisten dut norberaren izpi txikietan: *Guk ere bila dezagun geurea.*

Liburua oparitu zidan lagun onak ondo dioen bezala: "besteek ezin badute, salba gaitzala literaturak!".




ESKERTZA

SABIN BERISTAIN JUARISTI

2012ko azaroaren 12an hil zen, 82 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112
E-posta: *barren@elgoibarkoizarra.com*
Publizitatea: ☎ 943 744 112
E-posta: *barren.publi@elgoibarkoizarra.com*

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

**Argitaratzailea:**

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

**Laguntzaileak:**

ELGOIBARKO UDALA

MENDAROKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: *barren@elgoibarkoizarra.com*.

## Ea hemendik aurrera horrelako berri gehiago entzuten jarraitzen dugun

Gipuzkoako Batzar Nagusiek aho batez berretsi dute AP-1 eta AP-8 autopistetan hilean 25,64 euro baino gehiago ez ordaintzeko proposamena. Zoriontzekoa da hartu duten erabakia, behingoz alderdi guztiek bat egin baitute. Larraitz Ugarte Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako diputatuak aurkeztu zuen proposamena joan den uztailean, Foru Aldundiaren izenean, eta alderdi guztiek, Bilduk, EAJk, PSE-EEk, PPk eta Aralarrek alde bozkatu dute. Modu horretan, auto gidari gipuzkoarrok herrialdeko autopistetan hilean 25,64 euro ordainduko ditugu gehienez.

Erabiltzaile guztiok parte hartu behar dugu errepideen finantziazioan, baina langileen poltsikoak hustu gabe. Neurriaren ondorioz Gipuzkoako hainbat familiak euren gastua nabarmen murriztuko dute hilean. Urte luze hauetako egoera odoluste ekonomiko ikaragarria izan da hainbat familiarentzat, eta hori gainditzea lortuko da. Autopistako erabiltzaileentzat urteko kostua 300 bat eurokoa izango da neurri honi esker. 15.000 pertsona izango dira neurri honen onuradun hilero, eta 28.000 pertsona hilabeteren batean. Hainbat kasutan 700 euro baino gehiago aurreztea suposatuko du.

Nik, AP-8 erabiltzaile naizen aldetik, gustura hartu dut erabakia. Ea hemendik aurrera horrelako berri gehiago entzuten jarraitzen dugun; alderdi denak ados jarri eta elkarrekin Euskal Herri berri bat egiteko pausoak ematen.

**A.Z.**

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3.Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak…
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

**Informazio paneletan pintadak egin dituzte:** Mugikortasunaren Astearen barruan, oinezko eta gidarien arteko harremanak errazteko informazio panelak jarri zituen Udalak herriko hainbat gunetan, eta norbaitek pintadak egin ditu. Antonio Arrillaga kaleko irudia da behekoa, baina beste gune batzuetako paneletan ere pintada berbera egin dute.





**Elgoibarko Izarrako sarrera ez da ume aulkiekin joateko egokia:** "Aste honetan pare bat aldiz izan naiz Elgoibarko Izarra kultur elkartean, eta ume aulkiarekin joateko sarrera oso desegokia dela konturatu naiz. Alde batean eskailerak daude, eta beste aldean aldapa, baina oso estua da. Ume aulkiarekin ezin izan naiz sartu, eta barruko langileei eskatu behar izan diet laguntza. Sarrera moldatu egin beharko luketela iruditzen zait".

**Antonio Arrillaga kaleko lorategia bi bizilagunek zaintzen dute:** "Herriko beste hainbat gunetan bezala, Antonio Arrillaga kalean ere bizilagunek zaintzen dute lorategia. Bi bizilagunek hartu dute lorategi hori zaintzeko ardura, eta txalotzeko jokabidea da".



**Txalo bero bat Karakate elkartekoei, perretxiko erakusketa antolatzeagatik:** "Badira urte batzuk Karakate elkartekoek perretxiko erakusketa antolatzen dutela. Horrez gain, ikastetxeetako umeei perretxikoei buruzko jardunaldiak eskaintzen dizkiete. Gaztetxoengan perretxikoetarako zaletasuna suspertzeko modu egokia da. Lan ona egiten duzue!".

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
*barren@elgoibarkoizarra.com* 943 744 112

---



ESKERTZA

## JAVIER GALDOS ASTIAZARAN

2012ko urriaren 25ean hil zen, 78 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





ESKERTZA

## FRANCISCO LOBETE DE LA HORRA

*"Paco"*

2012ko azaroaren 7an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Hamar poltsa zabor atera zituzten Deba ibaitik

## Sei lagunek hartu zuten parte



Deba ibaia garbitzeko ekimena antolatu zuen Debegesak zapaturako, 'Ibai Lagun' egitasmoaren barruan, eta guztira hamar poltsa zabor atera zituzten ibaitik. Sei lagunek osatutako talde batek hartu zuen parte Deba ibaia garbitzeko lan saioan, eta hamar poltsa zabor atera zituzten ibaitik. Merkatu plazatik King Kong-eko zubira arteko ibai zatia garbitzen jardun zuten boluntarioek, eta era guztietako hondakinak batu zituzten: plastikozko poltsak, trapuak, forjako alanbreak eta konpresa ugari, besteak beste. Ibaian aurkitutako hainbat hondakinek erakusten dutenez, oraindik ere zaborra komunetik behera botatzen dute askok, eta horren gainean ohartarazi egin nahi izan zuten antolatzaileek, zaborra banatu eta dagokion edukiontzira bota behar dela, alegia.

## Elgoibarko odol-emaileak omendu dituzte Elgetan



Debagoieneko eta Debabarreneko odol-emaileak omendu zituzten Elgetan; tartean, Elgoibarko hamasei lagun. 25, 40, 50 eta 75 aldiz odola eman zutenak omendu zituzten. Meza izan zuten lehenengo eta gero bazkaria egin zuten.

## Sortu talde politikoa sortzeko Eratze Prozesua jarri dute martxan

Sortu talde politikoa sortzeko Eratze Prozesua jarri du martxan ezker abertzaleak, eta 2013ko otsailaren 23an egingo dute prozesuari amaiera emateko kongresua. Lau hilabeteotan, beraz, datorren urtetik aurrera ezker abertzalearen ezaugarri nagusiak zeintzuk izango diren erabakiko dute. Horretarako, hiru eztabaida nagusi eta barne hauteskundeak egingo dituzte. Elgoibarren ere hasiko dute prozesua, eta lehenengo eztabaida saioa azaroaren 24rako antolatu dute. Estreinako eztabaida horretan alderdiaren oinarri ideologikoen gainean jardungo dute. Kultur Etxeko sotoan batuko dira, 9:00etatik 13:30era. Bigarren saioa abenduaren 15ean egingo dute, ildo politikoak zehazteko; urtarrilaren 26an antolaketa eta funtzionamendua eztabaidatuko dituzte, eta otsailaren 9an egingo dituzte barne hauteskundeak.



## Emugi egitasmoa saritu dute Udalsarea 21 sarietan

Udalsarea 21 sariek Araba, Bizkai eta Gipuzkoako udalen iraunkortasun proiektu egokienak aintzat hartzen dituzte, eta aurten, Elgoibarko Udalak sustatutako Emugi egitasmoa saritu dute, Klima Aldaketa izeneko kategorian. Elgoibarko Udalak 2011n jarri zuen martxan Emugi egitasmoa, mugikortasun jasangarria bultzatzeko. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, pertsonen eta salgaien mugikortasun iraunkorra bultzatzeko eginiko ahalegina saritu dute.

Era berean, Debabarrenak ere jaso du saria, Biodibertsitatea kategorian, Deba eta Ego ibaiak berreskuratzeko sortu zuten *Deba Ibaia Bizi Gura* proiektuari esker. Saritutako proiektu bakoitzak 3.000 euro jasoko ditu.



## Lekua Mendaroko ikastola

Joan zen astean hasi zituzten Mendaroko ikastolako patioari estalkia jartzeko lanak. Garabi erraldoi batekin ari dira lanean, eta horren ondorioz, aste honetan Ikastola aurreko errepideko errei bat moztuta egon da tarteka.

Uztailaren 1ean hasi zituzten lanak Altuna y Uria enpresakoek, eta berez, abuztuaren 31rako bukatu behar zituzten, ikasturtea hasten zenerako. Udan, baina, luzaro egon zen obra geldirik, eta ondorioz, atzerapenez ari dira lanean. Udalak emandako azkeneko informazioaren arabera, abenduko lehenengo asterako amaituko dute obra. Zutabeak jarri ondoren, estalkia jartzeari ekingo diote. Sabaiak argizulo eta sabaileihoak izango ditu (azaleraren %20 inguru hartuko dute), patiora sartzen den argia uniformeagoa egiteko.



## Irudia Memoriaren Eguna

Memoriaren Eguna ospatu zuten zapatuan Elgoibarren, “terrorismoak eta indarkeriak gure herrian eragin dituen biktima guztiak gogoratzeko”. Elgoibarko bandera masta erdian jarrita egon zen udaletxean, eta udal ordezkariek lore sorta bat jarri zuten Giza Eskubideen parkean dagoen Gernikako arbolaren azpian. EAJ, PSE-EE eta PPko ordezkariek hartu zuten parte ekitaldian.



### Erosketak sarituko ditu Txankakuak

Azaroaren 30era bitartean Txankakua elkarteko dendetan egiten diren erosketek saria izango dute. Zortzi mila txartel laga dituzte dendetan, eta batzuek deskontuak dituzte eta besteek opariak. Erosketak herriko dendetan egitea sustatu nahi dute ekimen horrekin.

### Zuberoako Eperra ikastolaren aldeko otarrak Elgoibarko Izarran

Sohutako (Zuberoa) Ikastolak jakiz beteriko otarreak jarri ditu salgai, Ikastola finantzatzeko. Ardi gazta, eztia, ahate gibelarekin eginiko patea eta bizkotxo artisau poltsa ditu otarreak. Interesatuek Elgoibarko Izarra kultur elkartean erosi dezakete otarrea, 40 euroan. Informazio gehiagorako 943 741 626 telefonora deitu daiteke.

### Burgosera bidaia antolatu du Jubilatuen Biltokiak

Azaroaren 22an Burgosera egingo dute irteera, Jubilatuen Biltokiak antolatuta. 8:15ean irtengo da autobusa Kalegoen plazatik, eta egun osoa pasatuko dute Burgosen. Biltokiko bazkideek 38 euro ordaindu behar dituzte, eta gainerakoek, 43 euro. Bidaia, hamaiketakoa eta bazkaria sartzen dira prezio horretan. Interesatuek Jubilatuen Biltokian eskuratu dezakete informazio gehiago.

### Edergintza produktuen erakusketa, azaroaren 23an

Edergintza produktuen erakusketa egingo dute azaroaren 23an, Txarriduna jatetxean. Norberaren azalarentzat egokienak diren produktuak ezagutzeko aukera egongo da. 16:00etan hasiko da saioa. Informazio gehiagorako 665 703 173 (Jaione) telefonora deitu daiteke.

# PELLO RUBIO

## “Prozesuari emandako gizonak dira Arnaldo Otegi eta Jesus Egiguren”




**Beheko suaren epelean hartu gaitu Pello Rubiok Txillarren, urteetan Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramailea eta Jesus Egiguren PSE-EEko presidentea batu ziren egurrezko mahaiaren bueltan. “Beheko suak giro atsegina sortzen laguntzen du”, dio. “Hori izan zen Txillarreko bileretan nire papera: hemen hizketarako giroa sortzea”, gehitu du. Argazkirako, hiru liburu ekarri ditu mahaira. Jesus Egigurenen *ETA, las claves de la paz*, Fermin Munarrizen *El tiempo de las luces* eta Imanol Muruaren *Loiolako hegiak.* “Jesus eta Arnaldo dira hemen protagonistak, eta ez ni”, argitu du hasi aurretik.**

**‘Su txikian’ antzezlana taularatuko dute gaur Elgoibarren. Antzezlaneko Pello Rubio hori zara zu? Zer iruditu zaizu obra bera?**

Fikziotik dezente dauka nire pertsonaiak. Gizartearen eta politikarien arteko zubia naiz, istorioko notarioa-edo. Akta liburu bat idazten dut obran, eta azkenean, mahaian laga eta han jasotakoari heltzeko erronka botatzen diot gizarteari. Narratzaile antzeko bat naiz. Eta bai, gustatu zait obra. Ostegunean hemen izan ziren aktoreak bazkaltzen, baserriko energia positiboa transmititzeko.

**2000. urtean hasi zineten Paco Egea, Arnaldo Otegi eta zu batzen. Zerk bultzatuta?**

Modu naturalean izan zen. Neuk batu nituen biak, eta urtebetez ia hilero bildu ginen hemen, Txillarren, politikaz eta politika ez zenaz hitz egiteko. Aspaldiko lagunak ditut biak. 17 urte zituenetik ezagutzen dut nik Arnaldo, Francoren garaian borroka askotan eta batzar askotan egokitu ginelako elkarrekin. Ni ez naiz behin ere ezker abertzalekoa izan, LKIkoa (Liga Komunista Iraultzailea) baizik, troskista-edo, baina Francoren garaian, Franco kentzea zen lehentasuna. Paco ere 18 urte zituenetik ezagutzen nuen, lantokitik.

**Ez zegoen motibazio politikorik bileren atzean?**

Ez. Ez genuen hitz egitea beste helbururik.

**Hala joan zen 2000. urtea, eta 2001. urte hasieran Jesus Egiguren batuko zaizue. Nork gonbidatuta?**

Paco Egeak berak proposatu zuen, eta Arnaldok gustura hartu zuen. Eta halaxe 2001eko hasieran hasi zen etortzen Jesus. Baina helburua ez zen bakeaz edota ETAz hitz egitea. Mahai batean bueltan hitz egitea baizik. Eta Jesus etortzen hasi eta hilabete batzuetara, ia Pernando [Barrena] gonbidatuko genuen galdetu zigun Otegik. Eta bostok hasi ginen batzen.

**Garai zailak ziren. Batetik, ETAk hautetsi so-**

Elkarrizketa osoa irakurtzeko: *www.elgoiBARREN.net*

**zialistak zituen atentatuetako jomugan, eta bestetik, Espainiako Auzitegi Nazionala betebetean zebilen ezker abertzaleko egituren kontra.**

Eta, gainera, Espainian PPk agintzen zuen! Horrek erakusten du hemen bildu direnak beti egon direla negoziatzearen alde. Arnaldo da horren adibidea. Beti egon da hizketarako prest, gai honi irtenbide bat emateko.

**Jesus Egiguren eta Pernando Barrena gehitu zitzaizkizuenean, Txillarreko bilerek kutsu politiko handiagoa hartuko zuten, ala?**

Ez pentsa. 2001-2005ra bitartean 40 bat bilera egingo genituen. 40 bat otordu. Ez genuen egutegi finkorik; haien agenden arabera jartzen genituen hitzorduak. Aldaketa nabarmena 2004ko martxoaren 11n Madrilen izan ziren atentatuen ondotik etorri zen [talde islamista batek lau lehergailu zartarazi zituen bidaiariz betetako lau trenetan. 191 lagun hil zituzten]. Mahai honetako inork espero ez genuen zerbait gertatu zen orduan: inkestek PPri ematen zioten garaipena, baina besteak beste, PPkoek atentatu haren harira esan zituzten gezurrak direla-eta, Jose Luis Rodriguez Zapaterok irabazi zituen Espainiako hauteskunde orokorrak, eta aukera berri bat zabaldu zitzaigun. Jesusek Txillarren egosten ari zenaren berri eman zion Zapaterori, eta honek beste abantada bat hartu zuen. Negoziazioko aukera ikusi zuen Jesusek.

**ETA ere hitz egiteko prest azaldu zen.**

Bai. ETAren aurreneko gutuna ere hona iritsi zen, Txillarrera. Gobernuarekin harremanetan jartzeko prest agertu zen ETA. Hortik sortzen da Genevako lehenengo bilera [2005]. Neronek eraman nuen Jesus hara, berak eskatuta. Bi-hiru egunean egin genuen Genevara joan-etorria. Dunant zentrokoekin gelditua zegoen han [Henry Dunant Elkarrizketa Humanitariorako zentroa]. Bilera haietan Egigurenek bide-orri bat adostu zuen Josu Urrutikoetxea ETAren ordezkariarekin eta gero etorri zen ETAren su-etena [2006ko martxoaren 22an].

**Nolakoak izaten ziren Txillarreko bilerak?**

Oso naturalak. Errespetuzkoak. Arnaldo ondo ezagutzen nuen, baina niretzat istorio honetan deskubrimentua Jesus izan zen. Benetako politikaria da, eta hori Arnaldok berak ere aitortzen du *El tiempo de las luces* liburuan. Gaur egunean politikari *txarlatan* asko daude. Jesus, baina, benetako politikaria da, Aizarna bertakoa, eta ezker abertzalekoak gertuko ditu. Eta hori oso garrantzitsua da. Inportantea da haien azalean jarri eta gauzak ulertzen saiatzea. Jesusen lekuan beste bat balitz hona etortzen hasi zena aspaldi ziren hemengo bilerak eten. Pertsona handia da. Esaten duena barru-barrutik esaten du.

**Zein hizkuntzatan izaten ziren bilerak?**

Gaztelaniaz, Paco Egeak ez zekielako euskaraz. Bilera bakarra egin zuten euskaraz: Iparraldekoak gonbidatu zituztenean, Xabi Larralde eta Frantxua Maitia etorri zirenean.

**Egigurenek bizkartzainak erabili ditu urteetan. Hona ere lagunduta etortzen zen?.**

Bai, baina etxe barrura sekula ez ziren sartu.

> **“Jesusen [Egiguren] ordez beste bat balitz hona etortzen hasi zena aspaldi ziren bilerak eten”**

**2000 amaieran hasi zineten batzen, eta bost urtean inor ez zen ezertaz enteratu. Diskretoak behintzat bazarete. Nola egiten zenuten?**

Isilean ibili beharra zegoen-eta! Geure neurriak hartzen genituen. Gogoan daukat askotan neronek joan behar izaten nuela furgonetaz Jesusen bila. Arnaldo ere igo izan dut kaja artean sartuta. Saiatzen nintzen enkarguak aurrez aurre ematen. Txoferra, sukaldaria, telefonista, errekadista... nintzen ni. Horixe zen nire papera. Baina hori baino garrantzitsuagoa zen hemen giro ona sortzea, hemen zeuden bitartean gustura, eroso, egon zitezen hizketan. Garrantzia handia eman nion nik horri beti, eta beheko suak berak lagundu zidan horretan.

**Elgoibarren izango zen Txillarreko bileren berri zuen bakarren bat. Ez duzu uste?**

Ez. Elgoibarren ere ez. Jakina, publiko egin ondoren, denek esaten zuten bazekitela zerbait, baina nik beti esaten dut kiniela ostiralean egin behar dela eta ez astelehenean.

**Bost urtean une gogorrak ere izan ziren. Legez kanporatzeak eta atxiloketak batetik, eta bestetik, ETAren atentatuak. Juan Priede Orioko zinegotzi sozialista eta Froilan Elespe Lasartekoa, esaterako, urte horietan hil zituen ETAk. Nola bizi izan zenituzten?**

Ez ziren une errazak izaten, eta halakoak gertatzen zirenetan saiatzen ziren aldi batez bilerarik ez jartzen. Hala ere, gertatzen zena gertatzen zela, hizketan jarraitzeko konpromisoa hartua zuten aurrez. Argi zegoen zein zeinen izenean ari zen. Arnaldo Otegik ez zuen ezker abertzalea ordezkatzen, eta Jesus Egiguren ez zen sozialisten izenean ari. Nork bere izenean hitz egin zuen hemen. Idatziz ere jaso zuten, 2002an [Agiri originala atera du erakusteko. Gaztelaniaz dago, *Prolegómeno para un diálogo político* dauka izenburua eta bilera hartan parte hartu zutenek sinatuta dago: Barrena, Otegi, Egea eta Egiguren. Barrenak idatzi zuen ordenagailuz, Txillarren].

**Lehenengoz *Tiempo* aldizkarian aipatu zituzten Txillarreko bilerak.**

[Ale bat ekarri du. 2005eko maiatzaren 2ko data dauka]. Uste dugu Pernandori segika iritsi zirela hona. Dena den, informazioa ez da zuzena. Adibidez, Rafa aipatzen dute, baina Rafa [Diez] ez zen behin ere egon hemen.

**Euskal Herrian baserri gehiago ere badira esan zuen horren harira Otegik.**

*Tiempo*k publiko egin ostean beste baserri batzuetan ere egin genituen bilerak, bagenekielako hau oso zainduta egongo zela. Larraskandan egin genuen bileraren bat, artzain txabolaren batean ere bai... Bazkaria hartuta joaten nintzen Txillarretik.

**Zelatarien gaia aipatzen du Imanol Muruak *Loiolako Hegiak* liburuan. Kontaiguzu.**

Liburuko gertakari hori 2005ean izan zen. Auzoko emakume bat etorri zitzaidan esanez hemen atzeko arbola artean pertsona bat zebilela mikrofono batekin eta kamararekin. Somatu genuenean, berehala desegin genuen bilera, eta hartu behareko prebentzio neurriak ere hartu genituen, gizon hura argazkiaren atzetik zebilelako. Egun horretan neuk eraman behar nuen Jesus Egiguren Donostiara, eta errepidean behera hartu beharrean, gorantz hartu genuen. Eta hara! Azkoitiko errepidean zegoen gizon haren autoa aparkatuta. Oinez jaitsi zen Txillarreraino.

**Makina batek ezagutuko dute honezkero zuen etxe bueltа hori.**

Asko ibili dira hemen bueltaka, bai. Behin gogoratzen dut hor, Karakate magal horretan, hiru ordu egin zituela kotxe batek aparkatuta. Bi lagun ikusten nituen lurrean jarrita, eta berotu nintzen, hartu nuen autoa eta bertara joan nintzaien ia zer demontretan ari ziren

galdetzera. Matrikula zenbakia hartu eta etxera bueltatu nintzen. Ez nuen zeintzuk ziren jakiterik izan, baina kazetariak izango ziren ziurrenik. Beste behin, Azkoititik barrena Jesusekin etxera nentorrela, konturatu ginen auto bat segika genuela. Gelditu genuen kotxea, irten ginen biok sututa, eta uxatu genituen. Jesusek uste du ertzainak zirela.

**Ez zenuen inoiz *Dena ETA da* arrazoitzen zutenen zakuan jausteko arriskurik ikusi?**

Ez. Bizitzan arrisku batzuk hartu egin behar dira, gainera. Begiratu Arnaldo non dagoen! Badakigu estatu espainola nolakoa den, baina operazio honetan parte hartzearen arriskua hori zen. Beldurrik ez, baina Madrilgo tertulianoak giroa berotzen ikusten nituenean kezka antzeko bat izaten nuen, bai: eskuin muturrekoek kezkatzen ninduten. Hona etorri eta edozer egiteko gai ikusten nituen.

**Mahai honen bueltan eseri zenetako bat, Otegi, kartzelan dute preso, eta bestea, Egiguren, politikako lehen lerrotik aldendu da, bere hitzetan urteetan "zorotzat" hartu dutelako eta horrek "hustu" egin duelako. Zer sentitzen duzu halakoetan?**

Irlandan ere gertatu zen hori. Prozesuari emandako gizonak dira biak, eta Jesusi gertatu zaiona da bere etxean eman diotela egur handiena. Eta, jakina, 40 urtean gauza baten atzetik ibili eta behin lortu dutenean, hori... Nola liteke, baina? Frustazio ikaragarria izan behar da. Otegik, berriz, jakin du ezker abertzalearen masa osoa beste bide batera eramaten. Maria Antoniari [Maria Antonia Iglesias kazetaria] ere esan nion behin. Otegik itsasontzi osoa eraman nahi zuela beste portu batera, eta horrek denbora eta esfortzu handia eskatzen zuela. Espainiako Gobernuak, dela PSOE egon edo PP egon agintean, nahiago luke bidean itsasontzi hori zatituko balitz, baina itsasontzia oso-osorik ari da portura iristen.

**Egea, Otegi, Egiguren eta Barrenaz gain, politikari gehiagok ere ikasi dute Txillarrerako bidea.**

Bai. 2005era arte, horiek eta Patxi Lopez. Blokeo egoera batean geunden hemen, eta mahai honetan egiten ari zirenari babesa emateko etorri zen Lopez, PSE-EEko idazkari zela. Zapatero Gobernura iritsi zenean mahaiko jendea aldatu egin zen, baina. Rodolfo Aresekin batera hasiko da etortzen Egiguren, eta ezker abertzaletik, Rufi Etxeberria eta Olatz Duñabeitia etorriko dira Otegirekin. ETAk su-etena eman arte, negoziazio luzeak izan ziren. Gauza asko gertatu ziren bilera horiek iraun zuten denboran. Anoetako proposamena, Zapateroren bisita Donostiara... Kursaalean, Otegi bake gizona zela esan zuen Zapaterok, adibidez. Hemen egositakoaren ondorio dira horiek, hein batean.

**Eta orain zer?**

Nik uste dut lehenengo eta behin presoen gaiari irtenbide bat topatu behar zaiola, eta bitartean, elkarbizitza landu behar dela. Dena den, nik uste dut elkarbizitza hori berez etorriko dela; hemen ez da Irlandan bezain zaila izango. Izan ere, hemen denok batera bizi izan gara. Baliteke harreman tirabiratsuak eduki izana gure artean, baina hemen ez gara Irlandan moduan bi hormak bereizita egon. Elkarbizitzan asko hobetu dugu, eta hori oraindik Arnaldo preso dutela, presoen gaia ez dela konpondu... Estatuak etekin handia atera dio ETAri, eta orain ez dagoela, noraezean dabil. Argi gelditu da hemengo gatazka ez dela ETAren borroka armatura mugatzen, eta irtenbide bat bilatu behar dugu, Katalunian egiten ari diren bezala.

> **"Gure belaunaldiak sortu zuen ETA, adibidez, eta guri zegokigun amaitzea"**

**Zuk zer paper betetzen zenuen bileretan?**

Lehenengo fasean neuk ere ematen nuen iritzia, baina jakina, nik nire iritzia izan arren, saiatzen nintzen beti erdibidetik jotzen, bi aldeak elkarrengana gerturatzen-edo. Bigarren fasean, bilerek beste seriotasun bat hartu zutenean, ni alboratu egin nintzen apur bat. Han egoten nintzen, baina entzuten.

**Horixe falta da herri honetan: alde biak gerturatuko dituen norbait. Ez duzu uste?**

Bai, eta antzerkian agertzen da hori. Ezin dugu sufrimendua luzatu. Ni beti erdibideen aldekoa izan naiz; nire izateko era izan da. Bizitzak erakutsi dit hori. Gure eginbeharra dela sentitzen dut, gainera. Gure belaunaldiak sortu zuen ETA, adibidez, eta gure belaunaldiari zegokigun amaitzea, konponbiderako pausoak ematea. Pentsa zenbat urte galdu ditugun egin diren astakeriengatik!.

**Beheko suak giro atsegina sortzen lagundu zizula diozu. Inoiz tokatu zaizu suhiltzaile lanak egin behar izatea?**

Behin ere ez. Jakina, horrek ez du esan nahi bakoitzak bere posizioa defendatzen ez zuenik! Eskema hau gizartera eraman behar dugu. Beheko sua, bazkaria... denak laguntzen zuen. Eta bada beste gauza bat. Hona etorritakoek barazkiz betetako otar batekin joan dira beti etxera! Baserriko ohitura da.

**Noiz arte iraun dute Txillarreko bilerek?**

Orain gutxira arte. Arnaldok Martuteneko kartzela utzi ostean ere jarraitu zuten hemen biltzen. Beste bost-sei bilera egin zituen Arnaldok Jesusekin, harik eta *Bateragune auzian* berriro atxilotu zuten arte. Ez zuten errenditu nahi. Datu bat emango dizut: [2007ko ekainean 6an] su-etena eten zuela iragarri aurretik, ETAk Barajasko aireportuko T-4 terminala txikitu zuen [2006ko abenduaren 30ean]. Bada, goiz horretan bertan, Arnaldok eta Jesusek bilera egin zuten Txillarren. Gabon zahar feria zen Elgoibarren, eta ni 6:00etatik azokan nengoen, baina Arnaldo etorri zen giltzaren bila eta han egon ziren biak, nire etxean. Jakina, bilerarako hitzordua aurretik zuten lotuta, ez baitzuten Madrilen gertatuko zenaren berri. Jesusek deitu zidan telefonoz niri. Hortik aurrerakoa gogorra izan zen, ikusi zutelako apurtzen ari zela ordura arte egindako lan guztia. Arnaldo *Bateragune auzian* atxilotu aurretxora arte jarraitu zuten batzen, eta gero kartzelara ere eraman dut nik Jesus, Otegi bisitatzera. Baita Maria Antonia Iglesias ere, aurrez babajan bat ere egina genuelako hirurok Txillarren.

**Euskal Herriko etxe askotan debekatuta dago otorduetan politikaz berba egitea.**

Hemen kontrakoa. Bazkariak hizketan jarraitzeko giroa sortzen laguntzen zuen.

**Zerbait gehituko zenuke?**

Faltan botatzen dudala Arnaldo, kontu honetan guztian bera delako, Jesusekin batera, protagonista nagusia. Egoera honetara iristeko pieza klabea izan da, eta ulertezina da kartzelan izatea. Besarkada bat Arnaldorentzat, eta izan dezala lehenbailehen antzezlan hau ikusteko aukera, gustatuko zaio-eta.

**Ainara Argoitia**



Norberaren etxebizitza dekoratzea prosezu paregabea da. Gure etxean sartzerakoan berotasuna eta babesa bilatzen dugu eta hori lortzeko ondo apaindu behar dugu etxea. Etxeko dekorazioarekin gustura egotea; etxea bakoitzaren pertsonalitatearen eta gustuaren arabera apaintzea oso garrantzitsua da. Guk horretarako aholku txiki batzuk emango dizkizuegu. Ondo pasa etxea dekoratzen!

# Dekorazio

gehigarria

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

Bernardo Ezenarro kalea, 2 behea
Erakusketa/Faxa: 943 531 847
Floren Cid: 647 463 436
E-posta: ibamar@euskalnet.net

- Berogailua
- Gasa
- Gasoila
- Aire egokitua
- Altzariak
- Manparak
- Osagaiak
- Erreformak
- Gremioen kordinazioa



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zoluak ezartzea
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra

San Roke, 7 behea ◆ Olaso industrigunea ◆ Olasope kalea, 18 ◆ 25 eta 26 moduloa ◆ Tel.: 943 740 570

# Bainugelak

✔ Bainugela etxeko gune garrantzitsuenetakoa izatera heldu da azken urteotan. Diseinuak garrantzia handia hartu du, baina oraindik ere erosotasuna eta ergonomia dira garrantzitsuenak.

✔ Bainuontziaren erabilera gutxitu den heinean, dutxa erosoagoek hartu dute indarra. Edozein neurritako dutxak egin daitezke gaur egun, eta bainuontzia kentzea gero eta errazagoa da. Merkatuan dagoen aukera zabalari esker, oso obra txikia egiteko aukera dago; azkar, txukun eta emaitza onekin.

✔ Bainugelak norbere beharren arabera egokitzeko aukera dago, eta hori oso garrantzitsua da, bereziki, behar bereziak dituen norbait bizi bada etxean.






# Koltxoiak

Gure gorputzak ezinbestekoa du atseden hartzea. Izan ere, atsedena zenbat eta luzeagoa eta sakonagoa izan, handiagoa izango da loak berezko duen efektu berriztatzailea. Lo sakona eten eta loa bera galduarazten dizkiguten hainbat arrazoi daude. Horietako bat da lastairak edo koltxoiak gure gorputzaren kontra egiten duen presioa. Presio horrek aldian-aldian postura aldatzera behartzen gaitu lo gaudela. Eta Mugimendu horrek, postura aldatze horrek hain zuzen ere, lo sakonetik ateratzen gaitu une batez. Zenbait materialek (biskoelastikoak), baina, presio hori gutxitzen dute, eta gure atsedenaldia sakonagoa izango da.

Adituek frogatu dute koltxoi on batek ez duela ez oso gogorra ez oso biguina izan behar. Koltxoi motak:

- Malguki edo muelledun koltxoia: Ekologikoak dira, oso ondo transpiratzen dute izerdia, zurrunagoak dira, eta hezetasunak ez ditu hondatzen. Horregatik oso egokiak izan daitezke izerdi asko botatzen duten pertsonentzat.
- Latex-dun koltxoiak: Malgukidun koltxoia baino hobeto egokitzen da gure gorputzera.
- Sintetikoa: latexaren formulazio sintetiko batetik lortzen dute.
- Bitarikoa: %20tik %40era bitartean latexez eta gainerakoan apar sintetikoz egindakoak izaten dira. Normalean izerdi gutxiago botarazten dute, eta latex naturalez egindakoak baino arinagoak izaten dira.
- Naturalak: %85ean latexa duten koltxoiei esaten zaie. Gainerakoan apar sintetikoz edo beste material batzuez eginda egoten dira.
- Apar sintetikodunak: Bi abantaila nagusi dituzte: neurrira moztu daitezkeela eta merkeagoak direla. Aldiz, tenperatura ez dute besteek bezain ondo erregulatzen eta erabilerarekin sendotasuna galtzen dute.












# ALTZARIAK ETA OHIALAK PERTSONALIZATU

Argazkiak gure ohiko bizitzan leku garrantzitsua hartu du. Gutariko gehienak argazki kamera digitala soinean dugula bizi gara, eta jende askok telefonoarekin ateratzen ditu erretratuak han eta hemen. Argazki horiek sare sozialen bidez erakusten eta partekatzen ditugu, eta egia da erretratuak inprimitzeko ohitura galdu egin dela. Hori dela eta, ohiko bihurtzen ari da etxeetako hormak edo altzariak erretratuekin hornitzea. Argazkiekin, beraz, altzariak eta ohialak pertsonalizatzeko aukera paregabea dago. Etxeko edozein gela eta txoko apaintzeko balio du teknika horrek, baina oraindik orain, umeen logela da horretarako erabiliena, bereziki, logela partekatzen denean. Izan ere, apaingarriak izateaz gain, gelako zonak bereizteko ere balio dute erretratuek. Gaur egun etxe ekoizle gehienek eskaintzen dute zerbitzu hori, eta gero eta arrakasta handiagoa hartzen ari da.




TELLABIDE
ITURGINTZA
Berogailuak
Gasa
Aire egokitua
Erregai likidoak
Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com



Lehen Aramar elektrizitatea, orain CARRANZA elektrizitatea
CARRANZA, C.B.
ELEKTRIZITATEA
Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999
- Instalazio elektrizitate orokorrak
- Instalazio industrialak
- Atezain eta bideo-atezain
- Eguzki energia
- Domotika

Morkaiko kalea, 1
20870 Elgoibar
(Gipuzkoa)



PAGOERROTA
iturgintza
- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza



Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)
Tel.: 943 75 60 44 - Faxa: 943 75 60 37 - Mugikorra: 659 334 323
E-mail: pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com - www.pagoerrotaiturgintza.com



# GARE irratizale elkarteak 20 urte bete ditu, eta hainbat ekitaldi antolatu ditu urteurrenaren harira

## Irratizaletasunari buruzko hitzaldiak eta erakusketa bat prestatu dituzte asteburürako

GARE irratizale elkarteak 20 urte egin ditu, eta urteurrenaren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte asteburürako: irratizaletasunari buruzko hiru hitzaldi eskainiko dituzte, irrati aktibazio berezia egingo dute Kultur Etxetik, eta sotoan irrati klasikoen erakusketa jarriko dute. 50, 60 eta 70eko hamarkadetako aparatuak ikusteko aukera egongo da, eta baita, Bigarren Mundu Gerrako tanke amerikar bateko emisora bat eta etxean eginiko irratiak. Ekitaldi guztiak irekiak dira, eta edonork hartu dezake parte. Zapatuan 16:00etan hasiko dira ekitaldiak, eta domekan, 10:00etan.

Elgoibarren irratizaletasuna sustatzeko sortu zuten GARE elkartea orain dela hogei urte. 25 bat lagunek ekin zioten lanari, eta gaur egun, hamar bat kide ditu elkarteak. Indartsu hasi zen taldea irratizaletasunarekin zerikusia zuten ekintzak burutzen. Urtero joaten ziren asteburu bat pasatzera Karakatera eta handik egiten zituzten irrati emisioak. Munduko jende askorekin hitz egitea lortu dute, eta lagun asko egin dituztela azaldu dute elkarteko kideek. Horrez gain, Elgoibarko hainbat elkarterekin ere egin izan dute lan. Besteak beste, Mugertza krosaren emisioan, Kilometroak jaian edota Jose Gurrutxaga krosean hartu izan dute parte. Irratia eta irratiaren inguruan dagoen teknologia dute gustuko, eta Interneten aro honetan irratia “bigarren mailako komunikabide” bihurtu den arren, edozein momentutan komunikatzeko balio duen tresna eraginkorrena dela gogoratu dute GAREko kideek.



*David Mekolalde eta Roberto Sanchez, GAREko kideak.*

GOKI ERREFORMAK S.L.
OBRAK ETA PROIEKTUAK





Olaso pol., 15 - 68 Pab. 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 744 223 - 943 744 587
goki@gokierreformak.com

Irizar Ibilbidea, 1 behea 20570 BERGARA
Tel.: 943 765 342 - Faxa: 943 765 216
bergara@gokierreformak.es

Fatxadak - Teilatuak - Bainugelak - Sukaldeak
Igogailuak - Gremioen koordinakuntza

www.gokierreformak.net

# Kalejira eta kontzertua antolatu ditu Musika Eskolak Santa Zezilia Eguna ospatzeko

Ikastolako ikasleek kalejira egingo dute Kalegoen plazatik ikastolara

Azaroaren 22an Santa Zezilia eguna dela-eta, hainbat ekitaldi izango dira Elgoibarren, musikarien zaindariaren eguna ospatzeko. Ekitaldiak Santa Zezilia bezperan hasiko dira, hau da, azaroaren 21ean. Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleek kalejira egingo dute 18:45ean, eta ondoren, kontzertua eskainiko dute Musika Eskolako auditorioan. Kontzertuaren ostean, bigarren mailako ikasleei diplomak banatuko dizkiete.

Hilaren 22an ikastolako umeen txanda izango da. Azken urteotako ohiturari jarraituz, kalejiran joango dira Ikastolara. Kalegoen plazan batuko dira 8:30ean, eta kantuan egingo dute ikastolara arteko bidea. Ez dira hor amaituko, baina, Santa Zezilia eguneko ospakizunak. Hilaren 25ean Udal Musika Bandak Santa Zezilia eguneko kontzertu berezia eskainiko du Herriko Antzokian, eta Sinuosek antolatuta, Keu Agirretxearen kontzertua entzuteko aukera izango da egun berean, Kultur Etxeko sotoan. 19:00etan hasiko da emanaldia, eta sarrera 3 eurotan jarri dute salgai.



## 340 ikaslek bisitatu dute Karakatek antolatutako perretxiko erakusketa



Karakate mikologia elkarteak perretxiko erakusketa antolatu zuen domekarako, seigarren urtez. Hemen inguruan batutako 166 perretxiko espezie jarri zituzten ikusgai, guztiak ere Aranzadi Zientzia Elkartekoen laguntzaz izendatu eta multzokatutakoak. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, domeka goizean batez ere perretxikoak ikustera jende asko gerturatu zela adierazi dute antolatzaileek. Astelehenean, berriz, ikasleentzako jardunaldi didaktikoak eskaini zituzten, gaztetxoengan perretxikotarako zaletasuna sustatzeko. 340 ikasle inguruk hartu zuten parte jardunaldi horietan.

### ‘Bertsoklown, final nagusia’ Mendaroko Gaztetxean

*Bertsoklown, final nagusia* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da gaur Mendaroko Gaztetxean, 22:15etik aurrera. Bertsolari Txapelketa Nagusiko gorabeherak antzeztuko hiru bertsolarik (Jokin Uranga azpeitiarra, Iñaki Gurrutxaga orioarra eta Iñigo Izagirre itziartarra) eta Andoni Egaña pailazo mendaroarra, *Inozentzio*, ariko da gai-jartzailearen paperean. Sarrerak hiru euroan jarri dituzte salgai.

### Jasone Osorok eta Uxue Alberdik ‘Titiriteroen ipuinak’ bilduman parte hartu dute

Jasone Osoro eta Uxue Alberdi elgoibartarrek ipuin bana idatzi dute *Titiriteroen ipuinak* bildumarako. Zortzi idazlek hartu dute parte, eta bakoitzak ipuin bat idatzi du. Euskaraz, zeinuen hizkuntzan, brailez eta QR kodeen bidez ikusi eta entzuteko prestatu dute bilduma.

### ‘Su txikian’ antzezlana aurkeztuko dute gaur

Azken urteotan euskal gatazkaren konponbiderako saioek emandakoa taularatuko du Glu Glu konpainiak gaur, Herriko Antzokian. Elgoibarko Txillarren baserrian Arnaldo Otegik eta Jesus Egigurenek izandako solasaldiekin hasi eta Loiolako hiru aldeko elkarrizketetarainoko pasarteak antzeztuko dituzte. Bi saio antolatu dituzte: 20:00etan gaztelaniaz, eta 22:15ean, euskaraz.

### Natalia Mellado ‘Qué tiempo tan feliz’ saioan

Natalia Mellado abeslari elgoibartarra Maria Teresa Camposek zuzentzen duen *Qué tiempo tan feliz* saioan agertuko da bihar, Manolo Escobarrekin. Telecinco katean ikus daiteke programa, zapatu arratsaldez.

# 79 elgoibartarrek eta 21 mendaroarrek amaitu dute Behobia-Donostia lasterketa

21.472 lagunek bukatu zuten Behobia-Donostia lasterketa, eta tartean 79 elgoibartarrek eta beste 21 mendaroarrek. Gure ordezkarien artean, Alberto Revuelta izan zen azkarrena. 1:03:30 denborarekin, bosgarren egin zuen elgoibartarrak. Emakumezkoetan, Ainhoa Lendinezek egin zuen elgoibartarren artean denborarik onena (1:30:22). Mendaroarren artean, Alonso Gomezek egin zuen denborarik onena, eta ezinduen kategorian, sailkapen nagusiko 11. postuan sailkatu zen Igor Elizburu, Handbike modalitatean.

| Izen-abizenak | Denbora |
|---|---|
| **ELGOIBAR** | |
| 5. Alberto Revuelta Garcia | 01:03:30 |
| 156. Jose Antonio Ruiz Del Rey | 01:11:38 |
| 397. Gorka De La Horra Irastorza | 01:15:11 |
| 446. Imanol Santos Urain | 01:15:42 |
| 533. Iñigo Salegi Aldabe | 01:16:27 |
| 762. Ibon Gabilondo Altuna | 01:17:54 |
| 1.686. Oier Irazabal Garciandia | 01:22:11 |
| 1.695. Ion Irazabal Garciandia | 01:22:13 |
| 1.723. Julen Irizar Manzisidor | 01:22:18 |
| 2.146. Asier Arzamendi Mujika | 01:23:40 |
| 2.751. Roberto Gonzalez Fernandez | 01:25:15 |
| 3.328. Xabier Uribetxeberria Arrese | 01:26:41 |
| 3.331. Iker Jaursoro Murgiondo | 01:26:42 |
| 3.569.Asier Mujika Leiaristi | 01:27:14 |
| 3.596. Imanol Iparragirre Agirretxea | 01:27:18 |
| 3.597. Sebas Etxaniz Alkorta | 01:27:18 |
| 3.668. Jose Ignacio Ortiz de Urbina Segurola | 01:27:27 |
| 3.720. Mikel Agulló Ruano | 01:27:32 |
| 3.929. Iker Amutxastegi Fernandez | 01:27:54 |
| 4.158. Lander Azpiazu Garay | 01:28:21 |
| 4.292. Iñigo Iturbe Ortiz de Zarate | 01:28:35 |
| 4.517. Aritz Olaso Garitano | 01:28:58 |
| 4.698. Mikel Kortabitarte | 01:29:19 |
| 4.702. Iñigo Aduriz | 01:29:19 |
| 4.784. Bruno Guerrero Labanda | 01:29:27 |
| 4.992. Gurutz Quintano Agirrezabal | 01:29:52 |
| 4.996. Gorka Garaizabal Agirregomezkorta | 01:29:52 |
| 5.049. Joseba Sagasta Anton | 01:29:58 |
| 5.058. Manu Rey Fernandez | 01:29:59 |
| 5.176. Migeul Angel Montes Crespo | 01:30:12 |
| 5.870. Ainhoa Lendinez Garate | 01:30:22 |
| 6.236. Ekaitz Baskaran Oñederra | 01:32:20 |
| 6.358. Aitor Zubiaurre Lizarralde | 01:32:31 |
| 6.370. Pilar Arriola Diez | 01:32:32 |
| 6.790. Javier Hernando Albert | 01:33:21 |
| 7.284. Arnaldo Otegi Mondragon | 01:34:16 |
| 7.781. Imanol Calleja Etxaniz | 01:35:07 |
| 7.791. Anton Mendizabal Etxaniz | 01:35:08 |
| 7.842. Juan Mari Mendizabal Alberdi | 01:35:13 |
| 7.852. Nerea Lendinez Garate | 01:35:14 |
| 8.255. Carlos Ayesta Arruza | 01:35:55 |
| 8.364. Juan Jose Roldan Merino | 01:36:06 |
| 8.620. Julen San Juan Prieto | 01:36:30 |
| 8.844. Asier Arrieta Vallejo | 01:36:51 |
| 8.870. Urko Sanchez San Martin | 01:36:53 |
| 9.033. Mikel Arriola Etxeberria | 01:37:07 |
| 9.333. Pedro Iparragirre Sopelana | 01:37:32 |
| 9.427. Guillermo Ezenarro | 01:37:40 |
| 9.486. Javier Agirrebeña Larrañaga | 01:37:43 |
| 9.518. Lourdes San Martin Andonegi | 01:37:46 |
| 9.528. Aitor Cornejo Larrañaga | 01:37:46 |
| 9.935. Itziar Gurrutxaga Gurrutxaga | 01:38:25 |
| 10. 585. Jorge Elkoroiribe Intxausti | 01:39:27 |
| 11.442. Igor Mugertza Untzilla | 01:40:54 |
| 11.445. Eduardo Ansola Aizpitarte | 01:40:54 |
| 11.447. Ernesto Ezenarro | 01:40:55 |
| 11.962. Arantza Beristain Bilbao | 01:41:48 |
| 12.199. Eduardo Armendia Azaldegi | 01:42:12 |
| 12.202. Jon Peli Uriguen Ansola | 01:42:12 |
| 12.414. Miguel Angel Castro Garrues | 01:42:38 |
| 12.435. Asier Lorenzo Gorrotxategi | 01:42:38 |
| 12.492. Danel Lopez Husillos | 01:42:48 |
| 13.136. Igor Etxeberria Zulaika | 01:43:56 |
| 13.402. Delia Santos | 01:44:23 |
| 13.403. Mikel Orive | 01:44:23 |
| 14.939. Ana Casquero Gonzalez | 01:47:29 |
| 14.943. Maria Jesus Izagirre Izagirre | 01:47:30 |
| 15.067. Jose Ramon Lopez Erauskin | 01:47:44 |
| 15.334. Gorka Mujika Urain | 01:48:14 |
| 15.983. Manuel Arrillaga Ibarluzea | 01:49:41 |
| 16.972. Nerea Sanz Avila | 01:52:09 |
| 17.182. Fernando Calvo Mintxinela | 01:52:45 |
| 17.235. Iñaki Barrutia Mugertza | 01:52:57 |
| 17.920. Eduardo Varona Abaitua | 01:54:43 |
| 18.784. Aitor Treviño | 01:57:35 |
| 20.191. Ion Perez Arizmendi | 02:04:56 |
| 20.249. Jose Ignacio Jauregi Mujika | 02:05:56 |
| **MENDARO** | |
| 157. Alonso Gomez | 01:11:38 |
| 363. Gotzon Zulaika Arakistain | 01:14:43 |
| 826. Iñaki Gil Onaindia | 01:18:16 |
| 828. Migel Angel Urkiza Anakabe | 01:18:16 |
| 1.646. Haritz Goikoetxea Aranberri | 01:21:59 |
| 1.755. Isaak Bergaretxe Kerejeta | 01:22:24 |
| 1.920. Igor Ezenarro Arriola | 01:22:56 |
| 2.160. Jurdan Ezenarro Arriola | 01:23:42 |
| 4.000. Israel Soto Calderon | 01:28:01 |
| 4.062. David Garcia Fernandez | 01:28:08 |
| 6.805. Ander Alvarez Narbaiza | 01:33:23 |
| 7.186. Ion Mendikute Arriola | 01:34:04 |
| 8.068. Jose Maria Cinto Gallardo | 01:35:37 |
| 8.448. Egoitz Mendikute Ferreira | 01:36:15 |
| 9.560. Julen Arrillaga Mugertza | 01:37:49 |
| 9.618. Ramon Ugarte | 01:37:55 |
| 10.456. Iñigo De La Iglesia Ugartemendia | 01:39:15 |
| 13.831. Aitor Etxeberria Perez | 01:45:12 |
| 15.088. Roberto Mangana Miguel | 01:47:46 |
| 15.349. Iñigo Zubiaurre Oruesagasti | 01:48:15 |
| 15.973. Joseba Jurado Merino | 01:49:39 |




*Alberto Revuelta lasterketako une batean.*

# Joseba Etxeberria omenduko du CD Elgoibarrek abenduaren 22an

C.D. Elgoibarko eta Athleticeko beteranoek partida jokatuko dute Mintxetan

Joseba Etxeberria omenduko du C.D. Elgoibarrek abenduaren 22an, jokalariaren ibilbide profesionala goraipatzeko, eta Athleticek fitxatu zuenean CD Elgoibarrek jaso zuen diru kopuruagatik eskerrak emateko. Horretarako, partida berezia antolatu dute: CD Elgoibarko eta Athleticeko beteranoen arteko norgehiagoka izango da Mintxetan, 16:00etatik aurrera.



Joseba Etxeberria CD Elgoibarren hasi zen futbolean. Aita eta aitona ere futbolariak izandakoak zituen, eta umetatik bizi izan du futbola. Berehala erakutsi zituen futbolerako doaiak, eta Realak fitxatu zuen infantiletan. 17 urterekin egin zuen debuta talde nagusian. Horrez gain, Espainiako Selekzioarekin urrezko bota jaso zuen 1995ean, 20 urtez azpikoetan, Qatarreko Mundialean. Uda hartan bertan, 550 milioi pezeta ordaindu zizkion Athleticek Realari, eta Joseba Etxeberria fitxatu zuen talde zuri-gorriak. Diru horren %10 jaso zuen CD Elgoibarrek.

Polemikaz beteriko fitxajea izan zen Etxeberriarena, eta Realaren eta Athletic-en arteko harremanak eten egin ziren. Hamabost denboraldi egin zituen Etxeberriak Athleticen, eta 514 partida jokatu zituen elastiko zuri-gorriarekin. 104 gol sartu zituen Athletic-ekin eta hamabi Espainiako selekzioarekin. 2010ean laga zion Joseba Etxeberriak futbolari profesional izateari.

## Concepto Egile areto futbol taldea sailkapeneko lehen postuan dago partida guztiak irabazita




Sei jardunalditan sei garaipen eskuratu ditu Concepto Egile areto futbol taldeak, eta Bigarren B mailako bigarren multzoko lehen postuan dago, Bizkaiko Zierbena taldearekin berdinduta. Azken partida Gasteizko Ikusnet taldearen kontra jokatu zuten, eta 2-3 irabazi zuten elgoibartarrek. Garaipen horri esker, zazpi puntuko aldea dauka hirugarren sailkatuarekin. Liga erregularraren amaieran sailkapen nagusiko lehenengo biek jokatuko dituzte igoera faseko kanporaketak. Asteburu honetan jokatu du Concepto Egilek Iruñeko San Juan taldearen kontra. Bihar izango da partida, 16:00etatik aurrera, kiroldegian.

### Larizek eta Garaizabalek bigarren egin zuten Esteribarreko Raidean

Iñigo Larizek eta Imanol Garaizabalek osatutako bikoteak bigarren egin zuen Esteribarreko (Nafarroa) orientazio proban. Hainbat proba gainditu behar izan zituzten partaideek, besteak beste, mapen irakurketa eta orientazioa eskatzen zuten probak. 6:54:09 denborarekin, bigarren lekuan sailkatu zen bikote elgoibartarra, irabazleek baino puntu bat gutxiagorekin.



# Bihar jokatuko dute Karakateko Igoera, 11:00etatik aurrera

Karakatera mendi irteera ere antolatu dute biharko

Bihar jokatuko dute Karakateko Igoera, goizeko 11:00etatik aurrera. Partaideak Kalegoen plazatik irtengo dira, eta Karakatera arte, 710 metroko desnibela gainditu beharko dute. Bidea ez dago markatuta, eta horixe da hain zuzen ere probaren xarma: Kalegoen plazatik Karakatera arteko bidea norberak aukeratu dezake. Interesatuek 10:00etatik aurrera eman dezakete izena, irteeran bertan.




### Mendi irteera

Karakateko igoeraren harira, Karakatera mendi irteera antolatu du Morkaikok biharko. Adin guztietako lagunentzako irteera prestatu dute, eta beraz, nahi duen guztiak hartu dezake parte. 9:00etan irtengo dira Kalegoen plazatik, eta oinez egingo dute Karakatera arteko bidea.

### Alkortako Igoera

Azaroaren 24rako antolatu du Mendaroko Herrira taldeak Alkortako Igoera. 10:30ean irtengo dira partaideak udaletxe aurretik, eta Alkortara arteko 4,7 kilometroko ibilbidea gainditu beharko dute. Izenematea egunean bertan egin behar da. Bi euro ordaindu behar dira parte hartzeko.

## Xake eskolak hasi du ikasturtea

Elgoibar Xake Taldeak jakinarazi du ikasturtea hasi dutela dagoeneko, eta nahi duten guztiek parte hartu dezaketela xake eskolan. Pista Beltzean daukate lokala, eta martitzenetan irekitzen dute, 19:00etatik 20:30era.

## Laponian mendi eskiz eginiko zeharkaldiari buruzko hitzaldia emango du Alberto Agirreazaldegik



Bederatzi euskaldunek Laponia mendi eskiz zeharkatu zuten martxoan, eta horietako bat Alberto Agirreazaldegi izan zen. Morkaikok antolatutako mendi emanaldien barruan, Norvegiako iparraldean eta Suediako mugan bizitako esperientziaz mintzatuko da Agirreazaldegi. Abisko parke nazionalean hasi zuten trabesia, eta sei eguneko zeharkaldia egin ondoren, Nikkaluoktan amaitu zuten. Datorren martitzenean izango da emanaldia, 21:30ean, Musika Eskolako auditorioan.

## EMAITZAK

**FUTBOLA**
Pasajes 2 – Haundi 0 (3. maila)
Elgoibar 0 – Anaitasuna 2 (Erreg.)
Elgoibar 6 – Zestoa 1 (Jub)
Elgoibar 7 – Anaitasuna 0 (Kad.)
Elgoibar 0 – Lagun Onak 5 (Inf.)
Urola 3 – Elgoibar 1 (Inf. Txiki)
Elgoibar 3 – Aloña Mendi 4 (Aleb.)
Elgoibar 3 – Antigua Luberri 0 (Neskak)

**ESKU PILOTA**
Intxurre 22 – Lagunak 3 (2. mailako Kad.)
Arrasate 22 – Lagunak 2 (2. mailako Kad.)

**ARETO FUTBOLA**
Atenea 2 – Concepto Egile 3 (2. maila)
King-Kong 3 – Laskorain 4 (Jub.)

**ESKUBALOIA**
Usurbil 22 – Tecnifuelle Elg. 27 (Sen. nesk.)
Beristain Elg. 36 – Leizaran 18 (Jub. mut.)
Lauko Elg. 23 – Errotaberri 27 (Jub. nesk.)
Astigarraga Elg. 23 – Errotaberri 21 (Kad. nesk.)
Ikus Elg. 27 – Urnietako 18 (Kad. nesk.)
Pneumax Elg. 26 –Irungo Gaztiak 24 (Kad. mut.)
Pulpo 22 – Bankoa Elg. 30 (Inf. mut.)
Eibar 38 – Deca Elg. 9 (Inf. mut.)
Cometel Elg. 6 – Murgil 32 (Inf. nesk.)
Urdaneta 29 – Alkorta Elg. 25 (Sen. mut.)
Txarriduna Elg. 29 – Eibar 24 (Kad. mut.)
Zarautz 15 – Aterpe Elg. 13 (Inf. nesk.)

## AGENDA

**ARETO FUTBOLA** (Kiroldegian)
Zapatua, 17
16:00 Concepto Egile – San Juan (2. maila)

**FUTBOLA** (Mintxetan)
Zapatua, 17
11:00 Elgoibar – Urki (Kad.)
16:30 Elgoibar – Arenas (Haundi)

**ESKUBALOIA** (Kiroldegian)
Zapatua, 17
11:15 Bankoa Elg. – Arrasate (Inf. mut.)
12:30 Aterpe Elg. – Zarautz (Inf. nesk.)
18:00 Tecnifuelle Elg. – Pulpo (Sen. nesk.)
19:30 Alkorta Elg. – Anaitasuna (Sen. mut.)
Domeka, 18
9:45 Deca Elg. – Pulpo (Inf. mut.)
11:00 Astigarraga Elg. – Bera Bera Egia (Kad. nesk.)
12:30 Lauko Elg. – Bera Bera Egia (Jub. nesk.)

**PILOTA**
Barixakua, 16
21:15 Lagunak – Altzotarra (Pala, 2. maila)
22:00 Lagunak – Zarautz (Pala, 1. maila)
Domeka, 18
11:00 Lagunak – Azkoitia (2. mailako kad.)
11:30 Lagunak – Arrasate (2. mailako kad.)
12:00 Lagunak – Intxurre (2. mailako nag.)

## LANA

**ESKAERA**

• Magisteritzan diplomatuak LH eta DBHko klase partikularrak emango lituzke. Ikasgai guztiak.
☎ 696 295 098

• Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egin edo umeak eta adinekoak zaintzeko. Sukaldean lan egiteko ere bai. ☎ 605 720 298

• Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzeko. Esperientzia daukat, eta papelak legez. ☎ 690 925 929

• Emakumea lan bila: Pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan esperientzia. Orduka lan egiteko prest. ☎ 633 843 512

• Gizonezkoa lan bila: Gidari, mendiko lanetan eta biltegian esperientzia. ☎ 649 659 041

• Emakumea lan bila: Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka eta asteburuetan ere lan egiteko prest.
☎ 699 232 823

• Emakumea lan bila: Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke.
☎ 616 690 415

• Mutila eskaintzen da lanerako: Lorezaintza, desbrozadora, polinizazio edo tasazio lanak egingo lituzke.
☎ 607 885 609

• Emakume nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanak ere egingo lituzke.
☎ 605 720 298

• Emakumea lan bila: nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke.
☎ 681 065 683

• Emakumea lan bila: nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke.
☎ 678 346 279

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Etxean zein ospitalean.
☎ 645 557 141

• Mutila nagusiak zaintzeko prest. Etxean, ospitalean zein baserrian.
☎ 688 812 845

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Ordua, 8 euro.
☎ 638 884 104

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Baita garbiketak egin edota sukaldean lan egiteko ere.
☎ 943 176 256

• Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan lan egiteko. Umeak zaintzeko zein beste edozein lan egiteko prest.
☎ 649 582 608

• Neska eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Orduka nahiz interna.
☎ 686 052 084

• Mendi, baso zein baserri inguruak garbitzeko sasoiko mutila eskaintzen da.
☎ 699 690 965

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka.
☎ 636 362 251

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ 669 311 385

• Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka.
☎ 649 044 223

• Mutila eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko.
☎ 692 332 871 / 943 257 815

• Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka.
☎ 646 821 678

• Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka.
☎ 690 177 259

• Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Adin eta maila guztiak. Azterketa ofizialetarako prestaketa. Talde txikiak. ☎ 680 858 550 / 943 741 594

• Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean.
☎ 660 551 781

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke.
☎ 618 050 902

• Gizon arduratsua, lanerako prest. Nagusiak zaintzen eta sukaldari laguntzaile lanetan esperientzia.
☎ 631 053 415

• Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Ospitalean ere bai. Umeak ere zainduko nituzke edo garbiketa lanak egin.
☎ 699 609 190

• Emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Gidabaimena eta autoa ditut.
☎ 662 589 611 / 943 250 296

## ETXEBIZITZAK

• Obra berriko etxea salgai, San Bartolome 30ean. Etxearen banaketa aldatzeko aukera. San Bartolome kalera eta Plaza Txikira bistak. Galdetu Ferpi dendan edo ondoko telefonoan.
☎ 943 740 815

• Pisua hartuko nuke alokairuan.
☎ 608 474 923

• Pisua hartuko nuke alokairuan. Logela bakarrekoa, edo gehienez, bikoa.
☎ 695 743 405

• Logela bakarreko etxea alokatzen dut Errosario kalean. ☎ 630 374 124 (Naiara)

• Etxea alokairuan Elgoibarren. Bi logela, sukaldea, despentsa, egongela. Jantzita. Igogailuarekin. Erdigunean, nahiko berria.
☎ 655 711 334

• Pisua hartuko nuke alokairuan.
☎ 680 808 125

## GARAJEAK

• Marradun garajea alokatzen dut Santa Ana kalean.
☎ 652 716 724

## IBILGAILUAK

• Renault Traffic furgoneta salgai. 2006koa. Altxatzen den sabaia, bi ohe eta beheko ohea, berogailua, aurrealdeko toldoa... Egoera onean.
☎ 652 715 911

## BESTELAKOAK

• Ume aulkia, moisesa, trona, hamaka... salgai. Bakarka saldu daitezke, prezio onean.
☎ 676 899 604

• Bi hilabeteko txakur kumeak oparitzen ditun. Sallobente bailarako Berdun baserrikoak.
☎ 676 075 137

• La Unión Caza y Pesca elkarteko bazkide izateko akzioa salgai.
☎ 605 775 325

## KINTOAK

• 1974an jaio eta Ikastolan ibili zirenek afaria egingo dute azaroaren 24an, Txarriduna jatetxean. Interesatuek 50 euro sartu beharko dute Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0007 23 0071033857. Izena emateko azken eguna: azaroak 16.
☎ 677 260 878 (Iñigo) / 678 674 142 (Anjel)

• 67koen kinto bazkaria Sigma jatetxean, azaroaren 17an. Luntxa, 13:00etan, Viento Sur gastrotekan. Interesatuek 55 euro sartu beharko dituzte, azaroaren 14rako, Euskadiko Kutxan: 3035 0007 26 0071125370. ☎ 665 703 173 / 676 533 474





• Zorionak, **Telmo**, guapisimo! Bederatzi patxo handi zuretzat, eta ondo-ondo pasa zure egunean!



• Zorionak, **Ane**, azaroaren 15ean 11 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, etxekoen partez.



Zorionak, **Unai**, 9 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat, gurasoen partez.



• Zorionak, **Amaia**, azaroaren 17an zure urtebetetze eguna delako. Josetxo, Naiara eta Jorgetar senideen partez.



• Datorren astelehenean 15 urte! Zorionak maite zaitugun guztion partez.



• Zorionak, **Haritz Azpiazu**, asteazkenean 11 urte egin zenituelako. Gurasoen, eta Nagore eta Julenen partez.



• Zorionak, **Ane**! atzo 12 urte bete zenituelako. Maitasun handiz, familiakoen, eta bereziki, guraso eta ahizparen partez.



• Zorionak etxeko berritxuenari, bere 11. urtebetetzean. Etxeko guztien partez, segi horrela, **Zorione**.



• Zorionak, **Ibon**, asteazkenean urtetxo bat bete zenuelako. Muxu handi bat.



Zorionak, **printzesa**, atzo 6 urte bete zenituelako. Etxekoen, eta bereziki, Maialenen partez.



• Zorionak, **txurfer**, datorren asteazkenean 7 urte beteko dituzulako. Zure etxekoen partez, muxu potolo bat.



• Zorionak gure etxeko printzesari. Asko maite zaitugu, **Nahia**.



• Zorionak, **Beñat**, aurten esku bete urte betetzen duzu-eta! Ondo pasa eta bost muxu handi, etxekoen partez.

**AGURREN ATALEKO PREZIOAK:**
Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

**ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**
Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguazten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, 12:00ak baino lehen, edo *barren@elgoibarkoizarra.com* e-postara bidali.




Abenduaren 16an
**Olentzeroren etxera**
familia irteera.
Prezioa 6€. Izenemateak
arazoaren 19tik 30era

Azaroaren 21etik 25era
**indarkeria sexistaren inguruko erakusketa**
Gaztelekuan

## 16 barixakua

### Aurkezpena
18:30 **'Dificultades en el aprendizaje'**
Amagoia Zabalak dislexiari buruzko liburua aurkeztuko du Mendaroko udaletxean.

### Antzerkia
20:00 eta 22:15 **'Su txikian'**
Glu Glu antzerki taldeak taularatuko du, Herriko Antzokian. Lehen saioa gazteleraz eta bigarrena euskaraz.

### Antzerkia
22:15 **'Bertsoklown'**
Bertsolari txapelketa nagusiko pasarteak antzeztuko dituzte, Mendaroko Gaztetxean.

## 17 zapatua

### Kirola
11:00 **Karakateko igoera**
Kalegoen plazatik irtengo dira korrikalariak, eta Karakatera igo beharko dute.

### Pailazoak
16:30 eta 18:30 **Pirritx eta Porrotx**
*Sentitu, pentsatu, ekin!* ikuskizuna taularatuko dute Herriko Antzokian.

### Jardunaldiak
16:00 **Irrati jardunaldiak**
GARE irrati klubak antolatuta, Kultur Etxean

## 18 domeka

### Irteera
10:00 **Praileaitz eta Ermittia kobazuloetara**
Okil Beltzak taldeak antolatuta. Maalan elkartuko dira.

### Jardunaldiak
10:00 **Irrati jardunaldiak**
GARE irrati klubak antolatuta, Kultur Etxean

## 20 martitzena

### Ipuin-kontalaria
17:00 eta 17:30 **Maider Galartza**
Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko saioa eskainiko du, Udal Liburutegian.

### Ikusentzunezkoa
21:30 **Mendi emanaldia**
Alberto Agirreazaldegik Laponian eginiko eski zeharkaldiaz hitz egingo du. Musika Eskolan.

## 21 eguaztena

### Santa Zezilia
18:45 **Kalejira**
19:30 **Kontzertua eta diploma banaketa**
Musika Eskolako auditorioan.

## 22 eguena

### Santa Zezilia
8:30 **Kalejira**
Ikastolako ikasleen kalejira, Kalegoen plazatik Ikastolara.

## 23 barixakua

### Ikusentzunezkoa
21:30 **Bideo forum**
Haizeak antolatuta, bideo foruma eta kafea pastekin. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. *Sólo mía* pelikula ikusiko dute.

## ZINEA

**'El fraude'**
17, zapatua: 19:00/22:15
18, domeka: 19:00
19, astelehena: 21:30



**'Carmina o revienta'**
**(Ongarri zinekluba)**
22, eguena: 21:30



### OKINDEGIA
18 domeka: IBARRENEA



### BOTIKA ORDUTEGIAK
**9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00**

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez
Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta
Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

### GUARDIAK

| | Egunez 9:00 - 22:00 | Gauez 22:00 - 9:00 |
|---|---|---|
| 16 | Etxeberria | Etxeberria |
| 17 | Fernandez | Barrenetxea |
| | Goizez: Barrenetxea | |
| 18 | Fernandez | Barrenetxea |
| 19 | Yudego | Yudego |
| 20 | Zabaleta | Garitaonandia |
| 21 | Barrenetxea | Barrenetxea |
| 22 | Ibañez | Yudego |
| 23 | Garitaonandia | Garitaonandia |


Aukera politta!
Baserria salgai
*250 m² eraberrituta, 125 m² ko
bi etxebizitza egiteko aukera.
*Teilatu guztiz berritua.
Alokatu ere egin daiteke!
Gero erosteko aukerarekin.
679 155 980 (Mari Jose)


ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA
Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!
Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria !
ZEZENBIDE AUTOESKOLA
ORDUTEGIA
10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era
5 EGUNEKO TEORIKAKO IKASTARO TRINKOAK
- Euskarazko eta gaztelerazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak
LEKUALDAKETA
San Frantzisko, 52 behea
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR




# ELGOIBAR SAN FRANZISKO

## Azken etxebizitzak %4ko BEZarekin

**Etxebizitzak trastelekuarekin**

**150.000 €-tik aurrera + BEZ**

**Bukatutako eraikina**
**Sukalde ekipatua**

**Orain BAI!**

Informa zaitez konpromisorik gabe

**943 74 44 67**

GABILONDO
API 317
AGENCIA INMOBILIARIA
C/ San Francisco 51, bajo.
Elgoibar

www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.